

Helduden martxoaren 20 eta 27-an kontseilu orokorreko bozkak direla eta, zueri heldu zauzue jukatzea, duela 7 urte eman dautazuen kargua, xuxen jasan dutan eta berriz ere zuen kargudun izan naitekela. 3 urterentzat bakarrakik aldi huntan, 2014-a arte, Frantziako deputatu eta senaturrek erabaki baitute, hortik landa, kontseilari orokorra desgarteraztea eta kargudun berri bat sortaraztea, lurralde konstseilaria. Garai hortan, segurrenik, Garaziko kantonamendua haundiagoko lurralde batean kokatua izanen da. Bozkatuko duzue beraz Garaziko azken kontseilariarentzat, sortuz geroztik behin ere mugitua ezin zen kantonamenduan.

2004-tik goiti, gauzak kanbiatu dira. Nazional mailan, Errepublikako Presidentak kudeatzen duen politika beti eta gogorrago ttipientzat, beti eta goxoagoa haundientzat ! Lan gabezia masiboa, gizartean sartzea beti eta beti zailagoa hanbat eta hanbat gazteentzat, ardua, miseria da gure begien aintzinean. Nola ez ginezake asma bertze politika bat posible liteikela, zuzenagoa, elkartasun eta solidaritate gehiagorekilakoa, ekonomiaren partetik dinamaka hobearekilakoa, eta kultura hedahobeagoa. Ikus ditaik Akitanian berian, nola posible zaukun enpresen eta enpleguen sustengatzea, formakuntza, ikerketa, inbestizamendu eta inobazio politika aktibo batekin. Bai posible da, gure laborarien laguntzea, beren indar haundienaren sakrifizioa egiten dutelarik gure baserrien bizirik atxikitzeke, kalitatezko eta sormarkaz labelizatu ekoizpeneri buruz lotzean, igurumena eta iraunkortasuna zainduz. Gure departamenduan, solidaritea behar ginuke, obsesioraino gogoan. Ahuleneri buruz, fragilitateak hunkiak direneri buruz, ixiltasunean sofritzen duteneri buruz, oraiko mundu gogorrrak baztertzen ditueni buruz.

Garazi, gure kantonamendua mugitu da zazpi urtez. Herriak edertu dira eta ekipatu. Obra haundiak kudeatuak izan dira : azenizamendu, argitze, eliza eta eskola erreberritze, herri-erdi antolatze, etxebizitza erreberritze Kontseilu orokoretik lagunduak izan dira. Lekuko enpresek modernizazio operazio batean atxeman dute sustengu eta kuraia haundirekin laborari gazte askok deliberatu dute laborantxari lotzea (34 gazte undar 3 urte hauetan Garaziko kantonamenduan berean). Menditarrek beren geroaren giderrak eskuetan arturik ari zauzku behar diren erregulazionen eraikitzen. Horiek oro, possible izan dira prozesu publikoeri esker: PCD, Leader europar programa, Pireneoetako Hitzarmena, mugaz gaindikako kooperazione programak, Euskal Herriko lurralde kontratua eta abar. 20 millio euroz gain diru laguntza ekarriak izan dira kantonamendurat departamendutik, gure bideentzat, herrien, enpresen, laborarien inbestizamenduentzat, turismoaren edo kulturaren alde. Ber denboran, Akatiniako kontseiluak, Donibaneko lizeoko "internat" haunditzen zuelarik, geltokia apaintzen, eta abiatzen Baiona eta Garazi arteko treinbidearen erreberritzea. Ainitz proiektu lagundu ditut eta emanak izan diren diru laguntzak behar ziren lekuetan bozkatu ere.

Kontseilu Orokorrean, egoera biziki berezia dugu, nonbrea berdintasun batekin ezker eta eskuinaren artean. Egoera hunek ez du iraunen eta Ezkerrak Alternantzia behar du eraiki. Posible da. Ezkerreko talde politikoak prestatuak ditu xeheki bere proposamenak hortarako: Departamendua izan dadin solidario, iraunkor eta inobatzailea. Proposamen horiek sustengatuko ditut dudarik eta ahuleziarik gabe. **Solidaritatea** gazteentzat, familientzat, xaharrentzat, jende handikapatuak direnentzat, nekezian direnentzat etxebizitza baten lortzeko mementuan edo lan munduan sartzeko garaian. **Garapen iraunkorra** ere gure ekonomian, laborantxan, garraio publiko ofreitzan, undarkinen gestionean. **Inobazioa** ere lurraldekoek asmatzen dituzten gero ekonomiko, zozial eta ingurumenerako arlo desberdinetan, hurbiltasun haundienean, orori xantza berdinak emanak izan dituen.

Baxe-Nafarroaren eta Euskal Herriaren historio politiko eta intelektualean, Garaziko lurraldea izan da beti lurralde nagusi bat. Ez da bertzen meneko utzi behar. Erreferentzia bat da barnekaldi osoan. Eskuindarrek itzemaiten zaukuten kamioiez betetako Nafarroako bidea, gure turismoaren xantza guziak errautsiko zituen proiektua, bazterdu dugu –eta zer maneran!. Ez dugu berriz bortaintzinean izaiteko irriskutan ezarri behar. Baina Donibane Garaziko hiri-erdiaren desbideratzea baitezpadakoa da. Jadanik, Euskal Herriko lurralde kontratuan kokatuak daude proiektu andana bat: Herri Elkargoak kudeatzen duen pizza berria, gure laborarien ekoizpenen sustagaile den Abatorraren garapena, Adindunen Egoitza xahar etxearen erreberitzea, Enpresen lagungarritzat Lutxibordan nahiko nuker xerbitxu-etxea, Donibane hiri-erdiaren antolaketa, Garaziko gimnastika sala. Bertze proiektu batzuek ere merezi lukete gure gogoetatze kolektiboa. Ala nola, su-hiltzaileen kaserna berria, bibiloteka-mEDIATEKA, Adminiztrazione zerbitzuak bil lezazken zentroa. Hanbat eta hanbat elkarteek aberasten dute Garaziko bizia. Zer gatik ez, horientzat, bil lezazkeen Elkarteen-Etxe bat. Aipatzen den Gaztetxe bat ere asma litaik. Proiektua landu behar liteke eta eraikitzailea izendatu. Prest nago gogoetetan parte artzeko eta bururaino laguntzeko.

*Euskara da gure nortasunaren erroa. Euskararen Erakunde Publikoa dugu tresna baliosa, Euskal Kultur Erakundea baitezpadakoa. Sortzea lagunduz geroztik, parte hartzen dut bi tresna horien buruzagitzan. Leku horietatik sustengatzen ditugu hainbat eta hainbat erakunde egunero lan eder eta zabalak kudeatzen dituztenak. Segitu nahi ditut oraino, hainitz lan baita egiteko. Ipar Euskal-Herriak zuen instituzio xumea, « pays » egitura, errautsi daukute eskuindar deputatu eta senaturrek, Tokiko Kolektibitateen erreforma berriaren karietarat. Alta baitezpadakoak zauzku bi gauza: Ipar Euskal Herria bateratzen dituen erakundeak, Garapen Kontseilu eta Hautetsien Kontseilua eta bertze instituzio nagusiekin Kontratu pasatzeko poderea. Hemen ere, izanen da lan egiteko.*

Nltan kondatzen ahal duzue.